

# LANBIDE-GARAPENEN OHIKO DEIALDIA

OHIKO GALDERAK 2025EKO ETA BERRIZ IREKITAKO 2022, 2023 ETA  
2024KO EKITALDIETAKO DEIALDIKO  
AUTOEBALUAZIO-FASEAN

Osakidetza

1. BERTSIOA

## 2025KO ETA BERRIZ IREKITAKO 2022, 2023 ETA 2024KO OSAKIDETZAREN LANBIDE-GARAPENeko EKITALDIETAKO DEIALDIAK (2081/2025 EBAZPENA)

AUTOEBALUAZIO-FASEAN OHIKOAK DIREN GALDERAK (570/2026 EBAZPENA)

### AURKIBIDEA

<b>AURKIBIDEA</b> .....	1
1. AUTOEBALUAZIO-FASEA: GAI OROKORRAK .....	2
2. ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAKO ERREKLAMAZIOAK ETA ATZERA EGITEAK.....	3
3. EBALUAZIO-PROZEDURA.....	5
4. <i>CURRICULUM VITAE</i> APLIKAZIOKO CURRICULUM- MEREZIMENDUAK.....	9
5. HURRENGO URRATSAK .....	14

# 1. AUTOEBALUAZIO-FASEA: GAI OROKORRAK

## 1. LANGILEEN ETA TALENTUAREN ZUZENDARIAREN APIRILAREN 1EKO 570/2026 EBAZPENAK LANBIDE-GARAPENEN OHIKO DEIALDI HONETAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATU DU, ETA ONARTUEN ARTEAN NAGO, ETA LANBIDE-GARAPENEN MAILA JAKIN BAT JASOTZEKO AUKERA DUT. ZER GERTATUKO DA JARRAIAN?

Onartutako pertsonak **Autoebaluazio Fasean** sartzen dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren 6. artikuluan jasotzen den bezala. Autoebaluazioa, alde batetik, faktoreak ebaluatzeko informazio garrantzitsua ematean datza, **Autoebaluazio Fitxaren** bidez, eta, bestetik, autoebaluazioan, curriculumeko merezimenduak alegatzean.

**Autoebaluazio-fasea** borondatezkoa da, ez derrigorrezkoa. Onartutako pertsonak informazioa ematen dute, eta beren lanbide-taldearen arabera aplikatu behar zaizkien faktore ebaluagarrien autoebaluazioa egiten da. Gainera, fase horretan, onartutako pertsonak beren curriculum-merezimenduen egoera zein den egiazta dezakete, eta oraindik Osakidetzako *Curriculum Vitae* aplikazioan sartu gabe daudenak erregistratu ahal izango dituzte, baliozkotzeko dokumentazio egokia aurkeztuta. Informazio hori guztia kontuan hartuko da Ebaluazio Prozedurarako, zeina deialdiaren hurrengo fasea izango baita.

## 2. NON BETETZEN DA AUTOEBALUAZIO-FITXA?

Autoebaluazio-fitxa lanbide-garapeneko **aplikazio informatikoan bakarrik dago** eskuragarri, eta ezin da paperean bete.

## 3. ZER EPE DAGO AUTOEBALUAZIO-FASE HONETAN PARTE HARTZEKO?

Autoebaluazio-fitxa betetzeko, pertsona onartuek **hilabeteko** epea izango dute, Osakidetzako Langileen eta Talentuaren zuzendariaren apirilaren 1eko 570/2026 Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hau da, **2026ko apirilaren 8tik maiatzaren 7ra** (biak barne).

## 4. ZER GERTATZEN DA, ONARTUTA EGON ARREN, AUTOEBALUAZIO-FASE HONETAN PARTE HARTZEN EZ BADUT?

Autoebaluazio-fase honetan parte hartzea borondatezkoa da, eta, beraz, onartutako pertsonak autoebaluazio-fitxa betetzen ez badu, **prozesua ez da etengo, eta pertsona ez da hortik kanpo geratuko**. Besterik gabe, pertsonak autoebaluazio-fitxa ezarritako formatuan eta epean aurkezten ez badu, hurrengo fasean ebaluatuko dute, informazio hori izan gabe. Hala eta guztiz ere, **komeni da** autoebaluazio-fase honetan **parte hartzea**, pertsona bakoitzak ematen duen informazioak ebaluazio-prozedura aberasten eta osatzen baitu.

Azkenean pertsona batek bere Autoebaluazio Fitxa betetzen ez badu, **oso komenigarria izango litzateke**, gutxienez, bere curriculum-merezimendu guztiak eguneratuta eta baliozkotuta dituen berrikustea Osakidetzako *Curriculum Vitae* aplikazio informatikoan. Kontuan hartu behar da, alde batetik, erregistratu edo baliozkotu gabeko merezimenduak ezin izango direla ebaluatu, eta, bestetik, ebaluazioa gainditzeko lortu beharreko gutxieneko puntuazioa dagoela; beraz, pertsona baten merezimendu guztiak ebaluatzen ez badira, gerta liteke pertsona horrek gutxieneko puntuazioa ez lortzea, eta, ondorioz, ebaluazioa ez gainditzea, eta lortu nahi duen garapen-maila ez aitortzea.

## 2. ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAKO ERREKLAMAZIOAK ETA ATZERA EGITEAK

## 5. NIRE KASUAN, ERREKLAMAZIOA JARRI NUEN ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATU ZENEAN. NOLA JAKIN DEZAKET ZER GERTATU DEN NIRE ERREKLAMAZIOAREKIN?

Erreklamazioa aurkezteko erabili zenuen lanbide-garapeneko **aplikazio informatikoan** sartuz gero, orain, Erreklamazioaren erlaitzean, ikus dezakezu baietsia edo ezetsia izan zen, bai eta kasu bakoitzaren arrazoa ere. Jakina, Langileen eta Talentuaren zuzendariaren apirilaren 1eko 570/2026 Ebazpenean argitaratutako **behin betiko zerrendan** egiazta dezakezu onartutako edo baztertutako zerrendan zauden.

## 6. BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN NI ONARTUTA NENGOEN, BAINA ERREKLAMATU NUEN EZ NENGOELAKO ADOS LORTU AHAL NUEN GARAPEN-MAILAREKIN. NON EGIAZTA DEZAKET NIRE ERREKLAMAZIOA BAIETSI DIDATEN?

Zuzenean egiazta dezakezu Langileen eta Talentuaren zuzendariaren apirilaren 1eko 570/2026 Ebazpenean argitaratutako **behin betiko zerrendan**, eta bertan egiaztatu zuk eskatutako maila lortu ahal duzun maila den. Lanbide-garapeneko **aplikazio informatikoan** ere sar zaitezke, eta han xehetasun handiagoz ikus dezakezu zure erreklamazioa baietsi edo ezetsi den, bai eta ebazpen horren arrazoia ere.

## 7. NIK ERREKLAMAZIOA PAPEREAN AURKEZTU NUEN. NOLA EGIAZTA DEZAKET ZEIN IZAN DEN NIRE ERREKLAMAZIOAREN TRATAMENDUA?

Zure kasuan, zuzenean egiaztatu behar duzu Langileen eta Talentuaren zuzendariaren apirilaren 1eko 570/2026 Ebazpenean argitaratutako onartutakoen eta baztertutakoen **behin betiko zerrendan**; izan ere, erreklamazioa aplikazio informatikoaren bidez egin ez bazenuen, han ez duzu aldaketarik izango.

## 8. NIRE ALDETIK, ETA BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN ONARTUTA EGON ARREN, ATZERA EGITEKO IDAZKIA AURKEZTU NUEN, OHIKO DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEARI UKO EGITEKO. NON IKUS DEZAKET NIRE IDAZKIA BAIETSI DEN?

**Zuzenean** kontsultatu Langileen eta Talentuaren zuzendariaren apirilaren 1eko 570/2026 Ebazpenean argitaratutako **behin betiko zerrenda**. Atzera egiteko idazkia baietsi bazaizu, baztertuen zerrendan egongo zara, baztertzeko arrazoia atzera egitea dela jasota.

## 9. NIRE ERREKLAMAZIOA EZETSI EGIN DELA EGIAZTATU BERRI DUT ETA EZ NAGO ADOS. ZER EGIN DEZAKET ORDUAN?

**Gora jotzeko errekurtoa** aurkeztu ahal diozu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, Osakidetza Langileen eta Talentuaren zuzendariaren apirilaren 1eko 570/2026 Ebazpenaren aurka, hilabeteko epean, ebazpen hori argitaratzen denetik aurrera.

## 10. BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN ONARTUTA NENGOEN, BAINA ORAIN LANGILEEN ETA TALENTUAREN ZUZENDARIAREN APIRILAREN 1EKO 570/2026 EBAZPENEAN ARGITARATUTAKO BEHIN BETIKO ZERRENDAN BAZTERTUTA NAGOELA IKUSI DUT. NOLA IZAN DAITEKE HORI? ZER EGIN DEZAKET?

Onartutakoen behin-behineko zerrendan bazeuden eta orain baztertutako pertsonen behin betiko zerrendan agertzen bazara, horren arrazoia da **aplikazio informatikoak oker zenbatu zizkizula** lanbide-garapeneko ondorioetarako emandako zerbitzu-urteak, edo **aplikazioak ez zuela behar bezala berrikusi deialdian ezarritako baldintzak betetzen zirela**. Lanbide-garapeneko aplikazio informatikoak egindako akats horiek ofiziozko berrikuspenaren bidez zuzendu dira, eta, beraz, orain baztertuta zaude. Sartu aplikazio informatikoan zure kasuari buruzko xehetasun gehiago lortzeko.

Aipatutako hutsen zuzenketarekin ados ez bazaude, **gora jotzeko errekurtoa** aurkez diezaiokezu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, Osakidetzako Langileen eta Talentuaren zuzendariaren apirilaren 1eko 570/2026 Ebazpenaren aurka, hilabeteko epean, ebazpen hori argitaratzen denetik aurrera.

## 3. EBALUAZIO-PROZEDURA

### 11. ZER FAKTORE EBALUATZEN DIRA LANBIDE-GARAPENEN OHIKO DEIALDIAN?

Ohiko deialdian ebalua daitezkeen faktoreak abenduaren 19ko **2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan** zehazten dira. Irailaren 22ko 395/2005 Dekretuak, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuak eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuak ezarritako esparruaren arabera, kasu bakoitzean aplika daitezkeen faktore ebaluagarriak Osakidetzan garapen-maila aitortzeko eskatzen den lanbide-taldearen arabekoak dira.

Honako hauek dira ebaluatu daitezkeen faktoreak:

- (1) **jarduera asistentziala** (A1 eta B1 lanbide-taldeetan); **jarduera eta lanean aritzea** (A2, B2, C eta D lanbide-taldeetan); edo, **jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala** (E lanbide-taldeetan);
- (2) **lanbide-jakintza** (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako) edo **gaitasuna eta lanbide-jakintza** (C eta D lanbide-taldeetarako);
- (3) **prestakuntza** (lanbide-talde guztientzat);
- (4) **irakaskuntza eta jakintzaren hedapena** (talde guztietarako, eta C, D eta E taldeen kasuan, **berrikuntza** ere sartzen da);
- (5) **ikerikuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk** (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako soilik), eta
- (6) **erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa** (lanbide-talde guztientzat).

## 12. NOLA EGITURATZEN DIRA FAKTORE EBALUAGARRIAK?

Alde batetik, faktore ebaluagarriak hainbat azpifaktoretan artikulatzen dira, eta azpifaktore horiek, aldi berean, hainbat itemetan. Bestalde, faktoreak hiru bloke handitan biltzen dira.

**A blokeak** faktore hauek biltzen ditu:

- (1) jarduera asistentziala (A1 eta B1); jarduera eta lanean aritzea (A2, B2, C eta D); edo, jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala (E lanbide-taldean), eta
- (2) lanbide-jakintza (A1, A2, B1 eta B2) edo gaitasuna eta lanbide-jakintza (C eta D).

**B blokeak** faktore hauek biltzen ditu:

- 3 prestakuntza;
- (4) irakaskuntza eta jakintzaren hedapena (eta C, D eta E taldeetarako berrikuntza), eta
- (5) ikerkuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk (A1, A2, B1, B2).

Azkenik, **C blokea** faktore hau da:

- (6) erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa.

## 13. NORK EBALUATZEN DITU FAKTOREAK?

Alde batetik, **A blokeko eta C blokeko** faktoreak lanpostu funtzionala betetzen ari diren **atal, zerbitzu edo unitateko arduradunak** onartutako pertsona bakoitzarentzat ebaluatzen ditu. Ataleko, zerbitzuko edo unitateko arduraduna ez bada ebaluatuaren lanbide-talde berekoa, arduradun hierarkikoak edo funtzionalak (goragoko kategoria duenak) egingo du lanbide-eremuari dagokion ebaluazioa. Bestalde, **B blokea eta C blokearen** alderdi jakin batzuk osatzen dituzten curriculum-merezimenduak lanbide-garapeneko aplikazio informatikoak ebaluatzen ditu, 2081/2025 Ebazpenaren **eranskinetan ezarritako baremoen** arabera.

Ondoren, **Zerbitzu Erakundeko Ebaluazio Batzordeak** jasotzen ditu bai ataleko, zerbitzuko edo unitateko arduradunek A blokeari eta C blokeari buruz egindako ebaluazioak, bai B blokean lortutako puntuazioak eta baita onartutako pertsona bakoitzak emandako informazioa eta autoebaluazioak ere. Ebaluazio Batzordeak, orduan, ebaluazioaren emaitzak onar ditzake, edo ebaluazio osagarria eska diezaieke pertsonaren atal, zerbitzu edo unitateko langileei edo, hala badagokio, beste zerbitzu-erakunde batzuetako profesionalei.

Azkenik, **lanbide-garapeneko sistemaren jarraipena egiteko batzorde korporatiboak** koherentzia aztertuko du deialdian aurreikusitako ebaluazio-irizpideei dagokienez.

## 14. ZEIN DIRA EBALUAZIO-IRIZPIDEAK?

Alde batetik, Atal, Zerbitzu edo Unitateko arduradunek, deialdian onartutako pertsona bakoitzarentzat, **A blokeko eta C blokeko** faktore ebaluagarriak ebaluatzen dituzte. Bestetik, **B blokeko** faktore ebaluagarriak *Curriculum Vitae* aplikazio informatikoan jasotako curriculum-merezimendu egokiak kontuan hartuta ebaluatzen dira. C blokeko azpifaktore batzuk ere badaude, *Curriculum vitae* aplikazio informatikoan jasotako curriculum-merezimendu jakin batzuk kontuan hartzen dituztenak.

## 15. CURRÍCULUMEKO MEREZIMENDUEI DAGOKIENEZ, KONTUAN HARTZEN AL DIRA CURRÍCULUM VITAE APLIKAZIO INFORMATIKOAN JASOTAKO MEREZIMENDU GUZTIAK?

Ez, baldintza hauek guztiak betetzen dituzten curriculum-merezimenduak bakarrik hartzen dira kontuan:

- (1) aplikazioan "**Baliozkotuta**" egoeran dauden merezimenduak dira;
- (2) **aplikatu beharreko denbora-tartean sortu diren** merezimenduak dira, hau da, aurreko sei edo zazpi urteetan (lanbide-garapeneko I. maila lortu nahi dutenentzat izan ezik; pertsona horientzat denbora osoa hartzen da), eta **2025eko abenduaren 31ra artekoak**, 2025eko deialdian onartu izan direnentzat; eta **2022ko abenduaren 31ra artekoak**, 2022ko deialdian onartu izan direnentzat; eta **2023ko abenduaren 31ra artekoak**, 2023ko deialdian onartu izan direnentzat, eta **2024ko abenduaren 31ra artekoak**, 2024ko deialdian onartu izan direnentzat.
- (3) merezimendu horiek **berariaz identifikatuta daude 2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan**, zehazki, B blokean ebaluagarritzat jotakoak, eta, *Erakundearekiko lankidetzaz* azpifaktoreari dagokionez, C blokean ebaluagarritzat jotakoak.

## 16. EZ AL DIRA KONTUAN HARTZEN CURRÍCULUMEKO MEREZIMENDU GUZTIAK? AZKEN SEI EDO ZAZPI URTEETAKOAK BAKARRIK KONTUAN HARTZEN AL DIRA? ETA NOIZ HARTZEN DIRA KONTUAN SEI URTE ETA NOIZ ZAZPI?

Kontuan hartzen diren curriculum-merezimenduak **azken sei urteetan** (onartu zaituzten deialdiaren urteko abenduaren 31ra artekoak) sortu direnak dira, lanbide-garapeneko I. maila aitortuta izanik II. maila **lortu nahi dutenentzat**; azken zazpi urteetan (onartu zaituzten deialdiaren urteko abenduaren 31ra artekoak) sortutako merezimenduak, berriz, kontuan hartzen dira, **II. maila edo III. maila aitortuta izanik**, maila bakoitzean emandako aldien arabera hurrengo garapen-maila lortu nahi dutenentzat, betiere, maila bakoitzean emandako denbora-tarteak kontuan izanda. I. maila lortu nahi dutenentzat, **curriculum-merezimendu guztiak** hartzen dira kontuan onartu zaituzten deialdiaren urteko abenduaren 31ra artekoak (A1 lanbide-talderako izan ezik, horretan ez baitira merezimenduak baloratzen Osasun Zientzien espezialistaren titulua lortu aurretik).

## 17. NOLA LORTZEN DA EBALUAZIO POSITIBOA?

A eta C blokeei dagozkien faktore ebaluagarriek eta B blokean eta, hala badagokio, C blokean identifikatutako curriculum-merezimenduek **2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan ezarritakoaren arabera puntuazioa jasotzen dute.**

Ebaluazio positiboa lortzeko, **nahitaezkoa da lortu nahi den lanbide-garapeneko mailarako ezarritako gutxienerako puntuazioa lortzea hiru blokeetako bakoitzean.** Bloke eta garapen-maila bakoitzeko gutxienerako puntuazio horiek onarturiko pertsona bakoitzari aplikatu beharreko dekretuan ezarrita daude, aintzatespena lortu nahi duten lanbide-taldearen arabera.

Adibidez, 35/2007 Dekretuaren arabera, B1 lanbide-taldetik lanbide-garapeneko III. maila lortu nahi duen pertsona batek gutxienez 46 puntu lortu behar ditu B blokean.

## 18. EBALUAZIO POSITIBOA LORTZEKO, NAHIKOA AL DA LORTU NAHI DEN LANBIDE-GARAPENENKO MAILAREN HIRU BLOKEETAKO BATERAKO EZARRITAKO GUTXIENENKO PUNTUAZIOA LORTZEA?

Ez. Ebaluazio positiboa lortzeko, **nahitaezkoa da gutxieneko puntuazioa lortzea hiru blokeetako bakoitzean**, hau da, A blokean, B blokean eta baita C blokean ere. Bloke bakar batean ezarritako gutxieneko puntuazioa ez lortzeak automatikoki dakar ebaluazioa negatiboa izatea. Horietako bakoitzean gutxieneko puntuazioa lortu behar da, eta horrela bakarrik lortuko da ebaluazio positiboa.

## 19. ZER ONDORIO DU EBALUAZIO POSITIBOA LORTZEAK? ETA EBALUAZIO NEGATIBOA LORTUZ GERO, ZER GERTATZEN DA?

Ebaluazio positiboa lortzen duten onartutako pertsonak **aukeratu duten garapen-mailan sartuko dira**, eta 2081/2025 Ebazpenean ezarritako ondorio administratibo eta ekonomikoak jasoko dituzte.

Faktore ebaluagarriak biltzen dituzten hiru blokeetako bakoitzean eskatzen den gutxieneko puntuazioa lortzen ez bada, pertsonari ez zaio garapen-maila aitortzen, eta, gainera, **ezin izango du lanbide-garapeneko beste deialdi batean parte hartu mailen behin betiko esleipenaren ebazpenetik bi urte igaro arte**.

## 20. EZ NAGO ZIUR B BLOKEKO GUTXIENENKO PUNTUAZIOA LORTUKO DUDAN DEIALDI HONETAN. BERAZ, NIRE ESKAERAN ATZERA EGIN NAHIKO NUKE. ZER EGIN BEHAR DUT?

**Osakidetzak ofizioz baztertuko ditu** B blokean gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten eskaera onartuak (bloke horretan jasotzen dira prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren hedapena, ikerketa, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk). Ebaluazio-faseari ekin aurretik, B blokean gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten eskaerek ez dute jarraituko ebaluazio-prozeduran. Ondorioz, **ez dute ebaluazio negatiborik izango**, eta hurrengo deialdian aurkeztu ahalko dira.

Ez dute atzera egiteko idazkirik edo antzekorik aurkeztu beharko (horrelakoak aurkezteko epea jada amaitu zen). Ofizioz baztertuta geratuko dira, besterik ez. Ez dute ebaluazio negatiboaren ondorioz izango.

21. LANBIDE-GARAPENeko II. MAILA AITORTUTA DAUKAT D2 LANBIDE-TALDEAN, ETA OHIKO DEIALDI HONETAN III. MAILA LORTU NAHI DUT TALDE HORRETAN BERTAN. EGIAZTATU DUT 248/2007 DEKRETUAN, C-D-E LANBIDE-TALDEETARAKO, A BLOKEKO III. MAILARAKO 60 PUNTUKO GUTXIENeko PUNTUAZIOA EZARTZEN DELA, ETA II. MAILARAKO, BERRIZ, 55 PUNTU. II. MAILA AITORTUTA DAUKADANEZ, APLIKATZEN AL DA III. MAILAN ESKATZEN DIREN 60 PUNTUEN ETA II. MAILAN ESKATZEN DIREN 55 PUNTUEN ARTEKO ALDEA?

Ez. Bloke bakoitzean eta garapen-maila bakoitzean eskatzen den **gutxieneko puntuazioa** ebaluazioan lortu behar dena da. Inola ere ez da aplikatzen garapen-mailen arteko puntuazioen alderik.

## 4. *CURRICULUM VITAE* APLIKAZIOKO CURRICULUM- MEREZIMENDUAK

22. CURRICULUMeko MEREZIMENDUAK BERRIKUSI DITUT *CURRICULUM VITAE* APLIKAZIO INFORMATIKOAN, ETA KONTURATU NAIZ ASPALDITIK EZ DUDALA INFORMAZIOA EGUNERATU. ZER EPE DAUKAT HORI EGITEKO?

Ebaluazio-fasean kontuan hartzea nahi diren curriculum-merezimendu guztiak alegatzeko epea **2026ko apirilaren 8tik maiatzaren 7ra bitartekoa da** (biak barne). Hau da, autoebaluazio-fitxa betetzeko ezarritako epe bera da.

23. ZER URRATS EGIN BEHAR DITUT *CURRICULUM VITAE* APLIKAZIO INFORMATIKOAN SARTU GABE DITUDAN CURRICULUM-MEREZIMENDUAK ALEGATZEKO?

*Curriculum Vitae* aplikazio informatikoan edozein merezimendu erregistratu nahi duzunean jarraitu ohi dituzun urrats berberak dira. **Lehenik eta behin, aplikazio informatikoan erregistratu behar duzu falta den merezimendu bakoitza.** Dagokion laukian, ez ahaztu erregistro bakoitzaren egiaztatzea koloretan eskaneatuta eranstea. Ziurtatu merezimendu bakoitza dagokion atalean erregistratzen duzula; bestela, geroago "*Baliozkotu gabe*" egoeran gera daiteke.

Jarraian, zure zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu behar dituzu jatorrizko egiaztagiriak (edo fotokopia konpultsatua, data eta konpultsa egin duen pertsonaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria adierazita), baliozkotzeko. Deialdian onartuta egon arren, gaur egun Osakidetzan jardunean ez bazaude, baja hartu duzun zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan baliozkotu gabe dituzun curriculum-merezimenduen jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu behar dituzu.

Nolanahi ere, komeni da aldez aurretik zure zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzarekin harremanetan jartzea, egiaztagiriak aurkezteko hitzordua hartu behar bada ere.

## 24. NIRE CURRICULUM-MEREZIMENDUAK BERRIKUSI DITUT CURRICULUM VITAE APLIKAZIO INFORMATIKOAN, ETA EGIAZTATU DUT NIRE MEREZIMENDU BATZUK BALIOZKOTU GABE DAUDELA. BALIOZKOTU GABEKO MEREZIMENDU HORIEK KONTUAN HARTUKO DIRA EBALUAZIO-PROZEDURAN?

Ez. Ebaluazio-prozeduran, *Curriculum vitae* aplikazioan sartutako curriculum-merezimenduei buruzko erregistroak soilik hartuko dira kontuan, baldin eta "**Baliozkotuta**" egoeran badaude. Aplikazioaren beste egoera batzuetan dauden merezimenduak (hala nola "*Zirriborroa*", "*Bidalita*", "*Baliozkotu gabe*" edo "*Berrikusten*") ez dira kontuan hartuko. Hala ere, ez da beharrezkoa "*Bidalita*" egoeran dauden merezimenduak berriz erregistratzea; nahikoa da zure zerbitzu-erakundearen jatorrizko egiaztagiriak aurkeztea, aurretik aurkeztu ez badituzu.

## 25. NIRE CURRICULUM-MEREZIMENDUAK CURRICULUM VITAE APLIKAZIO INFORMATIKOAN BERRIKUSTEAN, KONTURATU NAIZ MEREZIMENDUREN BAT BERE GARAIAN "BALIOZKOTU GABE" GISA GERATU ZELA, EZ NUELAKO AURKEZTU EGIAZTAGIRIAK EDO AURKEZTU NUENA EZ ZELAKO NAHIKOA IZAN. ZER EGIN DEZAKET ORAIN?

Jatorrizko egiaztagiriak (edo kopia konpultsatua) aurkeztu behar dituzu zure zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan. Ez erregistratu berriro merezimendu hori hutsetik, berria izango balitz bezala. Dokumentazioa zuzena eta nahikoa bada, zure merezimendua baliozkotu egoerara igaroko da.

## 26. NOIZ ARTE HARTUKO DIRA KONTUAN CURRICULUM-MEREZIMENDUAK OHIKO DEIALDI HONETAN?

**2026ko maiatzaren 7an** erregistratu ez diren curriculum-merezimenduak ezin izango dira kontuan hartu hurrengo ebaluazio-prozeduran. Gainera, **zerbitzu-erakundeek aldeztu aurretik baliozkotu** beharko dituzte, eta, beraz, deialdi honetan onartutako pertsonen ziurtatu behar dute curriculum-merezimenduak *Curriculum vitae* aplikazio informatikoan erregistratzeaz gain, dagokien egiaztagiria aurkeztu dituztela zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan, adierazitako epean eta 23. galderan adierazitako baldintzetan.

Hori esanda, lanbide-garapeneko deialdi arrunt honetan **onartu zaituzten deialdiaren urteko abenduaren 31ra artekoak** edo data horren aurretik amaitu diren curriculum-merezimenduak soilik hartuko dira kontuan.

## 27. NIRE KASUAN, BATERAGARRITASUN-EGOERAN NAGO, DUELA ZENBAIT URTETIK IKASTETXE BATEAN IRAKASTEN ARI NAIZ, ETA GAUR EGUN ERE EGOERA HORRETAN NAGO. NOLA EBALUATZEN DA CURRICULUM-MEREZIMENDU HORI?

Curriculum-merezimenduen kasuan, hala nola graduoko irakaskuntzakoak edo egoiliarrenak, zeinak modu jarraituan egiten diren, , **onartu zaituzten deialdiaren urteko abenduaren 31ra arteko** aldia hartuko da kontuan. Hori bai, ziurtatu *Curriculum Vitae* aplikazio informatikoan erregistratuta eta baliozkotuta dituzula.

## 28. NIRE KASUAN, GRADUONDO BAT EGIN NUEN 2025–2026KO IKASTURTEAN, ETA 2026KO OTSAILEAN AMAITU NUEN. NOLA EBALUATZEN DA CURRICULUM-MEREZIMENDU HORI?

**Ezin da** curriculum-merezimendu hori ebaluatu lanbide-garapeneko ohiko deialdi honetan, **onartu zaituzten deialdiaren urteko abenduaren 31n** edo data horren aurretik amaitutako merezimenduak soilik hartuko baitira kontuan.

## 29. NIRE KASUAN, ESKUIZKRIBUAREN ARGITALPENA ONARTU IZANAREN JAKINARAZPENA 2025EKO URRIAN JASO NUEN, BAINA ARTIKULUA EZ ZEN ALDIZKARIAN ARGITARATU 2026KO OTSAILERA ARTE. 2025EKO URRIAN AHOZKO KOMUNIKAZIOAREN ONARPENA JASO NUEN, BAINA BILTZARRA EZ ZEN EGIN 2026KO URTARRILERA ARTE. NOLA EBALUATZEN DIRA CURRICULUM-MEREZIMENDU HORIEK?

Artikuluen eta liburuen argitalpenak, bai eta ezagutza zabaltzeko ponentziak, ahozko komunikazioak, posterrak edo beste esku-hartze batzuk ere, kontuan hartzen dira **argitalpen- edo betearazpen-datan**, hurrenez hurren, onarpen-erabakia jakinarazten den data edozein dela ere. Horregatik, hala badagokio, aipatutako bi merezimendu horiek ezin dira deialdi honetan sartu, onartu zaituzten deialdiaren urteko abenduaren 31 baita merezimendu horiek gauzatzeko azken eguna.

## 30. 15. GALDERAN ADIERAZITAKO BALDINTZAK BETEZ, CURRICULUMEKO ZEIN MEREZIMENDU EBALUATZEN DIRA ORO HAR *PRESTAKUNTZA* IZENEKO B BLOKEKO FAKTOREAN?

B blokeko **Prestakuntza** faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimenduak honako hauek dira:

- (1) Titulu akademikoa.
- (2) Graduondoko titulazioa.
- (3) Etengabeko prestakuntzako jardueretara joatea.
- (4) Ezagutza zabaltzeko jardueretan parte hartzea.
- (5) IT Txartelak.

## 31.- 15. GALDERAN ADIERAZITAKO BALDINTZAK BETEZ, CURRICULUMEKO ZEIN MEREZIMENDU EBALUATZEN DIRA ORO HAR *IRAKASKUNTZA ETA JAKINTZAREN HEDAPENA* IZENEKO B BLOKEKO FAKTOREAN?

B blokeari dagozkion **irakaskuntza eta jakintzaren hedapena** faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimenduak honako hauek dira:

- (1) Maila akademikoetan emandako irakaskuntza.
- (2) Irakaskuntza Osasun Zientzien espezialitateetan.
- (3) Graduondoko prestakuntzan emandako irakaskuntza
- (4) Irakaskuntza etengabeko prestakuntzan.

(5) Bilera zientifikoetan eta dibulgazio-bileretan parte hartzea eta haiek antolatzea.

(6) Artikuluak, liburuak, liburu-kapituluak, aldizkariak eta liburuak argitaratzea.

## 32. 15. GALDERAN ADIERAZITAKO BALDINTZAK BETEZ, CURRICULUMEKO ZEIN MEREZIMENDU EBALUATZEN DIRA ORO HAR IKERKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA BESTE MEREZIMENDU BATZUK IZENEKO B BLOKEKO FAKTOREAN?

B blokeko **Ikerkuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk** faktorearen ebaluazioan lekua duten curriculum-merezimenduak *Curriculum Vitae* aplikazioko Ikerkuntza/Berrikuntza, *Taldeetan parte hartzea* eta *Beste merezimendu batzuk* ataletan daude kokatuta. Hona hemen curriculumeko merezimendu horiek:

- (1) Ikerkuntzako eta berrikuntzako proiektuak.
- (2) Saiakuntza klinikoak eta frogantzako saiakuntzak.
- (3) Doktore-tesien zuzendaritza eta ebaluazioa.
- (4) Ikerkuntzako proiektuen ebaluazioa.
- (5) Sariak eta goraipamenak ikerkuntzari.
- (6) Jabetza industrial eta intelektualak.
- (7) Ikerkuntzako egonaldiak.
- (8) Ikerkuntzako plataformak eta sareak.
- (9) Lizentziako tesina.
- (10) Batzorde, epaimahai eta Osakidetzatik kanpoko beste organo batzuetan parte hartzea.
- (11) Bestelako jarduera/esku-hartze profesionalak.

## 33. 15. GALDERAN ADIERAZITAKO BALDINTZAK BETEZ, CURRICULUMEKO ZER MEREZIMENDU EBALUATZEN DIRA, ORO HAR, C BLOKEKO «ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZA» AZPIFAKTOREAN?

C blokeari dagokion **Erakundearekiko lankidetzak** faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimendu guztiak *Curriculum Vitae* aplikazioko *Taldeetan parte-hartzea* atalean daude. Hona hemen curriculumeko merezimendu horiek:

- (1) Osakidetzako batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak.
- (2) Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako batzorde, epaimahai eta bestelako organo batzuk.
- (3) Osakidetzako lan-taldeak.

## 5. HURRENGO URRATSAK

### 34. ORAIN HASTEN DEN AUTOEBALUAZIO-FASEA AMAITUTA, EBALUAZIO-FASEA DA HURRENGOA, "EBALUAZIO-PROZEDURA" ATALEKO GALDERA BATZUETAN AIPATU DIREN ALDERDIAK KONTUAN IZANIK. ZEIN DIRA DEIALDI HONEN HURRENGO URRATSAK?

Hain zuzen ere, behin Autoebaluazio Fasea amaituta (fase horretan, onartutako pertsonak beren borondatez bete ahal izango zuten **Autoebaluazio Fitxa**, eta *Curriculum Vitae* aplikazio informatikoan erregistratuta eta baliozkotuta ez zeuden **curriculum-merezimenduak** alegatu ahal izango zituzten), Ebaluazio Fasea dator. Fase horretan, lehenik eta behin, Ataleko, Zerbitzuko edo Unitateko arduradunak **faktoreak ebaluatzen ditu**, eta, ondoren, Zerbitzu-erakundeko Ebaluazio Batzordeak eta Lanbide-garapeneko sistemaren jarraipena egiteko batzorde korporatiboak ebaluazioen emaitzak berrikusten eta, hala badagokio, onartzen dituzte (xehetasun gehiagorako, ikusi 13. galdera).

Bi faseak amaituta, **Osakidetzako Langileen eta Talentuaren zuzendariaren beste ebazpen batek** ebaluazio positiboa lortu duten pertsonari esleitutako garapen-mailak argitaratuko ditu behin-behinean. Ebaluazio negatiboa izan duten pertsonak ere agertuko dira dagokien zerrendan.